



Komunikazioaren heriotza?

Philip Ball

Izana da Euskal Herrian Robert O'Neill ingeles-irakasle eta metodogile entzutetsua. O'Neill irakasleak ez ditu joera komunikatibistak begiko. Eta bere arrazoen nondik-norakoak Bilbon egin zuen hitzaldian eskaini zituen. Phillip Ball-ek, artikulu honen egileak, O'Neill-en argudioen berri eman ez ezik bertan zertan eta zergatik ez datorren bat ere adieraziko digu segidan.



O'Neill irakaslea (Iñaki Mintegiren kortesiaz)

Sarrera

Joan den otsailean *Oxford University Pressek* Bilbon antolatutako ekitaldietara joateko zoria izan nuen, eta, besteak beste, ingelesaren irakaskuntzaren inguruan hitzaldi eta aurkezpenak egin zituzten Michael Swan-ek, *Cambridge English Course* famatuaren egileak (1984), Plácido Bazok, *Fanfare* liburu bikainarenak eta estrukturalismoaren garaiko idazle eta irakasle sonatu izan zen Robert O'Neill-ek. Honek 1971n argitaratutako liburua *Kernel English* izugarri saldu zen eta berak markatu zuen 70. hamarkadako lehenengo urteetan ikuspegi estrukturalistaren ildo klasikoa, Wilkins-en *Notions and Function* (1976) liburuaren iraultza baino lehenago. Eskema guztiak apurtuz eta aurretik egindako guztia zorrotz begiratu eta erasoz irakaskuntzaren ildoak, gutxienez hizkuntzen irakaskuntzarenak, aldatzen dituzten liburu horietakoa zen.

Beraz, O'Neill hari entzutea merezi duten horietakoa da, maila jasoko pertsona. Ikuspegi estrukturalista hutsaren garaiak joanak dira; baina, irakaskuntzan ohi denez, utzi zituen honek ere bere arrastoak eta bizirik dirau hizkuntza arrotzen irakaskuntzaren mundu eklektikoan. O'Neill gaur egun, berak esan ohi duen bezala, Alemaniako eskola bateko "irakasle xume" bat da, zeren, nahiz eta "erretirua hartzeko garaia iritsi zaidan" uste du material didaktikoen egileen arazo handi bat dela behin lan horretarako kontratatzen dituztenetik aurrera, egon beharko luketen mundutik urrutiratu egiten direla, "meategitik" alegia, O'Neill-en hitzetan, eta poliki-poliki beren jatorriaz ahaztu egiten direla, ikasgela baitute jatorriaren erro nagusietako bat.

Hantxe azaldu zen gure aurrean gizon ahul bat, nekatu-aurrepegiarekin, zimurtua baina erabat karismaz betea, barruan sua zeramana eta, ingelesez esan ohi dugunez, "kaikuei barkatzen ez dien" begirada baten jabe zena.

Aurkezpenak berak, ekitaldiei amaiera ematekoa zenak, eta, aldi berean, irakasle horrek Oxford-en urte luzeetan egindako lanaren omenaldi, titulu probokatzailea zuen: *My quarrel with Communicative Language Teaching* (Hizkuntzen Irakaskuntza Komunikatiboan atsegin ez dudana). Begien bistan dago izenburu hori ez dela batere ohikoa horrelako ekitaldietan, horrelakoetan bukaerako hitzaldiak leunagoak izaten baitira, adostasun handiagokoak. Baina O'Neill ez da horrelakoa, hori ez da ez konformista ezta aitona "pasota" bat ere. Ez du egungo irakaskuntzaren mundua berak ezer esan gabe pasatzerik nahi, esan ez ezik eraso ere egiten dio horrek.

Nola eraso, ordea, "komunikazioari"? Giza egintzetan aski duina ematen du horrek gero. Bistan da O'Neill-ek lehendabizi hitz horren semantikak dakartzan arazoak azpimarratu nahi zituela, hori iruditzen baitzaio hizkuntzen irakaskuntzan gaur gertatzen ari diren nahasmenduen erroetako bat. Nork ez luke bere burua komunikatibistatzat joko metodologiaren arloan non dagoen galdetuko balitzaio? O'Neill-en iritzian irakasle askok eta askok uste dute bekatu larria izango litzatekeela gaur "irizpide" pedagogiko horretakoa ez izatea eta aitortzea beren saioetan orduak eta orduak ematen dituztela *irakasten*, gauzak esplikatzen, ikaskuntza-prozesuko tresneria gisa "aditza" "izenlaguna" eta antzeko hitz metahizkuntzakoak erabiliz, "komunikazio" famatua garatzen duten beste ekintza batzuk hobetsi ordez. Eta Tom Hutchinson ingeles famatuaren –berak idatziak dira *Project English* (1988) eta *Hotline* (1991)– metafora bat gogorarazi zigun: honek bere aurkezpenetan, konparazio gisa, Mari Errauskin gaixoa sartzen zuen (gramatika), etxea garbitzen gelditu behar izaten zuena (eta inorekin hitzik egin gabe, jakina) ez baitzuten bere ugazahizpekin (hiztun komunikatibista hutsekin) dantzara (dantzaldi komunikatibistara) gonbidatzen. Baina Erreformaren Amandre Maitagarriak salbatua du jada Errauskin zoritxarreko eta ahaztutako hura, berriro ere Eklektizismoaren Printzearekin dantzara gonbidatuz, eta orain denok lasai lo egingo dugu.

Agian ziniko samarra izango litzateke esatea Amandre Maitagarriak Hutchinson eta O'Neill bezalako autore batzuk salbatu dituela, askoz ere lasaiago egongo baitira MECek *El Diseño Curricular* delakoan definitu duen *La reflexión sistemática de la lengua*ren mundu berri horretan. Mundu horrek autore hauek hazi ziren lehengo mundu haren antz handiagoa du, estrukturalismoarena, alegia. “*Krashen hil da, gora gramatika! Hori izango ote da hurrengo ikurritza? Hori esan nahi al zigun O'Neill-ek?*”

Ez ahal da horrela izango; bestela “meategian” ari diren irakasleek izango lukete beren “bolizko dorreetan” bizi direnen aholkuak baztertzeko arrazoa franko, testu didaktikoen egile eta Hizkuntzalaritza Aplikatuaren esanak, irakaskuntzaren mundua marketing eta ikerkuntzaren bitartez maneiatu nahi duten horienak, alegia. Ikusi egin behar da horien erasoa eta gero aztertu, *Etxaldeko Matxinadako* txerriek (1) esango luketen eran.

“Komunikazioa ona. Gramatika txarra”

Gaur egun ez du inork, pentsatzen duena pentsatzen duela, horrelakorik esaten. Beraz, non daude irakasleak, meategikoak, egunero arriskuz eta desadostasunez betetako lurretan bide praktikoa negoziatu behar dutenak? O'Neill-ek buruan sartu nahi izan zien Bilbon gaur egungo arazoak ikuspegi komunikatiboaren ingurutik datozela, hor gehienak oraindik ere irakasle-trebatzaileak baitira, Britaniako Irletan sortutako belaunaldi bat bide bakarra dagoela uste duena, bide argitsu eder bat beste herrietako irakasle-trebatzaileei erakutsi beharrekoa; halaxe egin ohi zuten antzinako misiolari kristauak; O'Neill-en arabera, “intentzio onak baina azken buruan zentzugabeak” zituzten haiek. Eta gero erasoa zehazten hasi zen. Beraren ustez komunikatibismoak –bere erarik garbienean– dituen ezau-garri batzuk aipatu zituen:

- 1 “Student-centred (ikaslearengan ardaztutako) ikuspegia “teacher-centred” (irakaslearengan ardaztua) baino hobea da.
- 2 Hizkuntza bat ikasteak hizkuntza horretan diskurtsoak eta ekintza pragmatikoak egitea eskatzen du.
- 3 Syllabus komunikatiboa estrukturalista baino hobea da, honek hura ordezkatu baitu.
- 4 Ikuspegi komunikatiboak beti jartzen du arreta helburuetan, begien aurrean du beti ikasleak saioaren azkenean zer egiteko gauza izango diren.
- 5 Ez dio axola ikasleek hizkuntza zuzentasun gramatikalez ikastea. Hizkuntza horretan komunikatzeko gauza izatea da kuestioa.
- 6 Ikasleek bata bestengandik ikasten dute ikasgelako benetako elkar-reraginean, gelaz kanpo egingo luketen hein berean.

O'Neill-ek sei baieztapen horietan “Alderdi Komunikatibista”ren oinarri intelektualak ikusten du, partidu horren aldarrikapenaren antzeko zerbait. Eta, bistan da, ez zuen datozen hauteskundeetan horien alde botorik emateko batere asmorik.

Lehenengoak aski haserretzen du, ia sutan jartzen da “dogma” horren aurrean, hala deitu zion berak. Gai hori, izan ere, mamu beltza izan da aspalditik irakasle zaharrentzat. 1991n idatzi zuen Wong-Fillmore-k (1985) dikotomia horretaz egindako ikerketen ondorioa izan zela ez zegoela esaterik “ikaslearengan ardaztutako” ereduia bestea baino hobe zenik; izan ere, lortu zituen emaitzek horren kontrakoa erakutsi baitzuten. Emakume horrek “ikastalde on” gisa sailkatutako gehienak “irakaslearengan ardaztutako” ereduaren harikoak izan ziren (eta oso zorrotz jardun zuen *on* zer zen erabakitzekoan). O’Neill-ek, bera eskola zaharrekoa izaki, ezin zuen eraman ikastalde bat irakasleari eta honen azalpenei adi eta isilik dagoena (“Chalk & Talk”eredu magistrala) besterik gabe arbuaiatua izatea, leheneko ikuspegi batekoa zela leporatuz beste arrazoirik gabe. “Horrek txarra dela esan nahi al du?” deiadar egin zuen, gerrariaren begiratuaz. “Ez, arraioa! Beharbada ikasleek ingeles-pixka bat entzungo zuten saio horretan, ezta?”. Eta gero Edge-k (1992) idatzitako liburua aipatu zuen ironiaz; horren arabera, ikasaio-mota azaldu berri “antzu” horretan irakaslea zen nagusi eta informazioaren iturri eta ikasleen artean ez zegoen elkarreraginik. Edge-ren ikasaio komunikatiboak, ordea, beste argazki bat eskaintzen du: dozena bat ikasle arretatsu, boro-bilean jarrita, beren ikaskideei adi-adi entzuten, irribarra ezpainetan eta aurrez beraiek negoziatutako “atazan” gogoberoz murgilduta. Irakaslea han dago, baina ez du parte hartzen; bera “erraztailea” da.

O’Neill-ek, jakina, gauzak horrela sinplifikatzeari eraso egin zion, baina gehiago haserretzen zuen “liburuaren arriskuak”, erakusten baitu aski dela ikasleak ingurune komunikatibo batean jartzea eta, magiaren bidez edo, dena ongi aterako dela. Haren amorrazioak Krashen-en esaldi bat lehenengo aldiz entzun nuenean nik sentitutakoa ekarri zidan gogora, gaur egun ere ia-ia txorakeria bat ematen baitu:

“Ulertzeko moduko inputa aski emanez gero, hantxe egongo da presente gramatika egokia. Beraz, helburu komunikatibotan oinarritutako syllabusa sortzea aski da; gramatikaren hurrenkera berez iritsiko da” (1983).

Nahiago nuke gauzak hain sinpleak balira! Eta O’Neill-en hitzetara itzuliz, berak ondoriotu zuen “komunikazio-zaleek” ez diotela inoiz beren buruari galdetu noiz eta nola funtzionatzen duen hobeto ikaslearengan ardaztutako ikasaioak eta hori jakin gabe alferrikakoa dela era horretako aribideak edozein ikaskuntza-egoerataraz aplikatu nahia.

Bigarren puntuari dagokionez, ez dela egia pragmatikariak diotena. Berak zioenez, beretzat (eta beste askorentzat) hizkuntza bat ikasteak hizkuntza hori *estudiatzea* ere eskatzen du. Leech-en aipua egin zuen.

“Oinarri-oinarrian esango da gramatika (hizkuntzaren sistema formal eta abstraktua) eta pragmatika (hizkuntzaren erabilerako printzipioak) elkarren osagarriak direla hizkuntzalaritzaren barnean. Ez dezakegu hizkuntza baten muina ulertu bi arlo horiek eta beren arteko elkarreragina ikertu gabe” (1983).

O'Neill-ek jarraitu zuen esanez pragmatikak eragin handiegia izan duela hizkuntzen irakaskuntza modernoan, baina hizkuntzaren egintzen teoriek ez dutela ezer esan egintza horien sorburuaz. Beraren ustez, alferrikakoa da hizkuntzaren ondorio pragmatiko hutsak ikertzea horren atzean tresneria handia dagoelako, eta forma gramatikala mezuaren zati delako. Eta, gainera, jende askok tresneria hori nahi omen du, hori dutelako beren ikasteko era.

Laster xahutu zuen hirugarren puntua; bere ustez, horren atzean uste bat dago, alegia *orainaldia* eta horrelako hitzek ezer gutxi adierazten dutela denborari buruz, ingelesez bederen. Adibidez, orainaldia erabiliz ingelesez lehena eta geroa ere adieraz ditzakezu, eta, ondorioz, komunikatibistek nahiago dute metahizkuntza baztertu eta erabileran, praktikan eta horrelakoetan saiatu. Ez hizkuntzari buruz hitz egin baizik eta hizkuntza horretan hitz egin nozio eta funtzioen haritik –behin eta berriro entzundako hitzak inguru komunikatiboan–. “Lelokeriak” zioen O'Neill-ek. Ez dago Syllabus Komunikatiboaren antzekorik ezer; izan ere, edozein programak barne-egitura bat behar du hizkuntzaren egintzak berorien azpian dagoen gaitasun komunikatibo batekin lotuko dituen, eta gaitasun horrek hurrenkera argia eta zatika-zatikakoa behar du. Berarentzat ez da erraza pragmatikaren eta hizkuntzaren egintzaren arteko dantza horretan osagarriak zehatz-mehatz finkatzea, baina horixe da bide bakarra. Beste guztia gezurra da. Honen kontrako ideia oinarri zientifikorik gabeko “dogma” gisa arbuia zuen.

Laugarren puntuaz ariki, esan zuen badutela nahasmendu tipiko bat ikuspegi komunikatiboaren zaleek, giza jokabidea eta hizkuntz jokabidea elkarrekin nahastuz. Horiek bi gauza oso desberdin direla zioen berak, eta komunikatibistentzat hizkuntza jokabide-mota argi bat dela, egintzaren esanahiari begira dagoenean bakarrik balio duena, eta baliorik gabekoa dena erabilitako hizkuntzari begira dagoenean. Krashen-en tesia eta “Monitore” famatua ere horren antzekoak direla, oinarri zientifikorik gabeak. O'Neill-en ustez, ezin da jakin ikasleak saioaren azkenean zer jakingo duen, ezta ere epe luzera gogoan zer geratuko zaion. Hizkuntza azpiegitura baten baitan dago eta horixe da “suspertu” behar duguna. Izan ere, zenbat aldiz ez dira kexu ikasleak beren gaitasun funtzionala oso-osorik pikutara joaten zaielako Londoneko geltoki builoso horietakoren batean presa handia duen langileren bati zerbait (norabideren bat edo) galdetzen diotenean?

Bosgarren puntua, hizkuntz zuzentasunak garrantzi handirik ez duela, alegia, erraz ulertzen da, esan zuen berak, hasi berrien ikuspegitik, batez ere zuzentasun “handiegiaren” bidetik adorea galarazteko beldurra dagoenean. Horiek irakaskuntzan ondo finkatutako printzipioak dira. Baina uste du oraingo honetan zentzuzko aholku batzuk dogma bihurtu direla eta hasierako printzipioen mugak pasatu egin dituztela. Jakina, argudio hori “Zuzentasuna eta Jariotasuna” gaiarekin lotuta dago (ikus Duffy: Hizpide 1998, 42: 23-31), baina O'Neill-entzat jariotasunak oinarritzko eskaera du zehaztasun-pixka bat. Ez daitezke bi gauza horiek elkarrengandik banandu bi muturretan baleude bezala. Bestalde, bere ustez,

komunikatibisten joerak, ikasleei egoera edo testuingurua aintzat hartu gabe hitz eginaraztekoak, gaitasun sortzaile-pragmatikoa garatzea oztopatzen die, beti uste izaten baitute “ondo komunikatzen ari direla”.

Azkeneko puntuaz zioen ikasgelako mundua eta handik kanpokoa oso desberdinak direla eta ezin daitezkeela bi mundu horiek elkarrenganatu-ko dituzten metodologiak sortu, onena beti benetakoa delako ustetan. Ikasgelan ikusten dugunak, esan zuen O’Neill-ek, askotan aukera ematen digu normalean handik kanpora erreparatzeko ere astirik izango ez genukeen gauza askoz ohartzeko. Horren adibide izan daiteke irakasleak taldea mendeaz edukitzea, saioaren testuinguruak *hala eskatzen duelako*. Eta gauza bera gertatuko litzateke elkarri txanda ematearekin ere, hori ez baita ezinbestean gertatzen eguneroko tirripi-tarrapan. Ikasgelak, dio O’Neill-ek “babesleku” modu bat izan behar du ikaslearentzat, eta eduki dezala “benetakotik” hara ihes egiteko aukera, hori bere motibazioaren atal bat baldin bada. O’Neill-ek susmo hori du bere eskarmentu handiaren indarrez, halaxe gertatzen zaiola ikasle askori.

Ondorio gisa

Zer ondoriotu daiteke honetatik guztitik? O’Neill agure zahar eta petraldu horietako bat dela, beren garaian guztia hobea zela uste duten horietakoa? Nik ez dut uste, baina zuhurrago jokatu behar da eskuartean ditugun hauek bezalako gaietan. Euskal Herri osoko 400 bat irakasle baziren hemen azaldu duguna entzuten. Nola atera ote ziren horiek guztiak entzun ondoren, adoretuta, aldatuta, haserre? Auskalo. Esan dezakedana da O’Neill-ek nahastu egiten dituela “komunikatibo” hitza eta gramatikaren aurkako joera, eta horiek ez dira inolaz ere gauza bera. Itxura denez, ahaztu egin zaizkio komunikatibismoaren sorrera ekarri zuten arrazoiak. Ikuspegi estrukturalistak aski jateko ematen ez zion haurtxoa izan zen, ume hark ok egiten zuen irakaskuntzarekin irakasle gutxi baitziren gramatika era interesgarri eta ulertzeko moduan irakasten ziote-nak. Egia da O’Neill horretan saiatu zela, baina bere liburuak saltzen arrakasta izan zuen arren, porrot egin zuen. Psikolinguistikaren arloan egindako ikerketek apenas duten leku egokirik estrukturalismoan. Jende askok “ildo bakarreko” syllabusa baztertu egin zuen, zeren nahiz eta argia zen, ez baitzuen funtzionatzen. Irakasleak ez du era horretan ikasten, eta nola ikasten duen ez badakigu, ikuspegi komunikatiboaren saio “sozialagoak” alternatiba egokia ematen zuen.

Eta ez da egia, gainera. Mari Errauskin dantzara gonbidatu ez zutelakoa. Hori gehiegi esatea dela iruditzen zait eta arrisku handikoa, bestalde, horixe entzun nahiko bailukete hirurogeita hamargarren urteetako mundura oso pozik itzuliko liratekeen batzuek, erosoagoa zaie-eta mundu hura. Bereziki *komunikatzera* bideratu nahi den ikasaioa prestatzen zailagoa baita, eta horren ebaluazioa ere gaitzagoa. Espainiako erreformak ikuspegi esplizitua eman dio gramatikari, ikasleak menderatu beharreko “bosgarren gaitasun” gisa lehen esan dugun *Reflexión sobre la lengua* delakoa sartuz, baina Erreformaren norabidea ez da estrukturalista. Aitzitik, MECen *Diseño Curricular Base* (1992) Krashen-en aipua egiten du oraindik modan bailegoen, eta argi eta garbi “komunikatibismoa-

ren” munduan kokatua dago. O’Neill-ek eta berorren jarraitzaileek kontu handiagoz irakurri beharko dituzte horrelako lanak, ingelesaren hezkuntza-erreformaren eraginpean daudenak. 1987ko *National Curriculum*ek hizkuntzen irakaskuntzan erabat baztertu zuen estrukturalismoa, eta bizi-ki azpimarratu curriculum osoan “prozesuaren” teoriak “produktuarenen” gainetik.

Era berean, badirudi O’Neill-ek “dogmak” aipatzen dituenean ondo ez datorkion dogma baten tokian berak nahiago duen beste bat jarri nahi duela. Jakina, hori ez zuen berak esan bere aurkezpen hartan, baina, dena dela, baliteke irakasleei oro har, beste jende askori legez, dogmak ongi etortzea gutxienez berauek arbuiaitzeko aukera ematen dietelako. O’Neill-ek, Trim-en, komunikatibisten mugimenduaren sortzaileetako baten (1997) aipu bat eginez, esan zuen “reduktionismo” zingleegi baten errudun zirela, ikasleak hitz eginez hobeto ikasiko duela uste zutelako. Eta nik esango nuke agian O’Neill-ek arrazoi izango duela, baina estrukturalismoa erreduktionismo askoz ere zingleagoa dela, orain eta lehen eta beti uste baitu jende guztiak hizkuntzak era batean eta martxa bat berean ikasten dituela. Eztabaida honetako egia-rik egiena da ikuspegi komunikatiboari “zinglekeria” egotzi dakiokeela, bai, baina gutxienez aitortzen duela arrakastaz ezer irakatsi duen edonork dakiena: ikasle motibatuak ikasi egiten duela. Ez dugu inolako ikerketarik behar esateko horixe izan zuela oinarritzko printzipio ikuspegi komunikatiboak bere hasieran, eta horregatik beragatik balio handiagoa duela.

Beste alderdi batzuetatik dira garrantzi handiko O’Neill-en hitzak: haren esanetako bat da dikotomien mundua gezurrezkoa dela. Ez dago ezer bata ala bestea denik, eta gaur egungo lan pedagogiko askok lehen izandakoetatik gauza onak atera nahi ditu. Ingelese-ko erreformak dioen gisan: “Don’t throw the baby out with the bathwater” (Ez bota umea bain-nerako ur zikinarekin batera), izan ere, zikinkeria askoren artean gauza garbirik ere aurki genezake. Era berean, garrantzi handiko beste ohar bat izan zen: gelarik eraginkorrena gela malgua dela; irakasleak, metodo egokiez baliaturik, unean unekoari eta behar jakinei erantzuteko moduko-koa eta ez aurrez erabakitako egitasmoak ezarritakoa. Eta, beraz, arrazoi osoz dio kontuz ibili behar dugula argia ikusi dutela eta irtenbideak aurkitu dituztela esaten dutenekin, beren ikasaioak benetako komunikazioa-ren eredu zoragarri direla diotenekin. Horixe esaten zuen eta horretan hil zen Skinner, eta gero Krashen, eta beste asko ere beren horretan joango dira. Itxaropen bakarra dugu: hurrengo heriotzaren alternatiba ez direla Apokalipsiko lau zaldun gramatikalak izango.

Itzultzailea: Boni Urkizu

Oharra

1 George Orwell-en eleberri entzutetsua.

Artikulugilea

Philip Ball Hezkuntza ertainetan aritu da Ingala-terran, Perun, Omanen eta Euskal Herrian. Filologia ingelesa irakasten du Deustuko Filosofia eta Letren Fakultatean Donostian eta irakasleen heziketarako ikastaroetan dihardu EHUKo HIZPEIn. Hezkuntza ertaineko ANIZPE proiektua koordinatzen ari da Eusko Jaurlaritzarentzako. Proiektu hori ingelesa beste asignaturetako edukien bitartez irakastekoa da. Hizkuntzalaritza Aplikatuan masterra du, Essex-eko Unibertsitateak emana.

Bibliografia

Hutchinson, T. 1988. *Project English*. Oxford University Press.

Hutchinson, T. 1991. *Hotline*. Oxford University Press.

Bazo, P. 1993. *Fanfare*. Oxford University Press.

Swan, M. & Walter, C. 1984. *The Cambridge English Course*. Cambridge University Press.

Wilkins, D. 1976. *Notional Syllabuses*. London: Oxford University Press.

Edge, J. 1992. *Essentials of English Language Teaching*. Longman.

Krashen, S. & Terrell, T. 1983. *The Natural Approach*. Pergamon.

Leech, G. 1983. *Principles of Pragmatics*. Longman.

Duffy, A. 1998. Zer ikas dezakegu jariotasuna vs. zuzentasuna eztabaidatik? *Hizpide* 41: 23-31.

Trim, J. 1997. *EFL Gazette* (Abendua) 8-9.

MEC. 1992. *Diseño Curricular Base Secundaria*. MEC.

O'Neill, R. 1991 The myth of learner centredness. *ELT Journal* 45/4: 293-304.

O'Neill, R. 1971. *Kernel English*. Oxford University Press.

Wong-Fillmore. 1985. When does teacher-talk work as input? *In Input in Second Language Learning*. Rowley, Mass.: Newbury House.